

BALEIKE

214. ZENBAKIA: EURO BAT
2012ko URRIA

www.baleike.com

KATALUNIA ZUMAIARREN BEGIETATIK



ANGEL URANGA UNIBERTSOAREN SORRERAREN BILA



*Kalitatezko
produktuak*

*Gipuzkoako
Okelaren
Ziurtagiria:
GI-OKELA*

Juanjo Larrañaga harategia



ZUMAIA

Basadi auzategia, 4. Tel./Faxa: 943 860 621

ZARAUTZ

Salegi kalea, 14. Tel./Faxa: 943 890 215

BALEIKE 214

AZALA © Juan moyano



HERRI ALDIZKARIA

Foronda Kultur Etxea

Odieta, 2

tel.: 943 86 15 45

e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea

Baleike Kultur Elkarte

e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea: Agustín Zubimendi eta

Xabier Azkue.

Erredakzio taldea: Imanol Azkue, Ainara Lozano

Lasa, Aitor Manterola, Juan Luis Romatet,

Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio, Jon

Urbietta eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea

tel. 943 86 15 45

agustinzubimendi@baleike.com

Inprimategia

Antza Inprimategia

(Lasarte-Oria)

Tirada

800 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian

adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

TOKIKOM

6

baleike +

KATALUNIA: IDENTITATEAREN ALDARRIKAPENA

4

hitz-tantak
“PROBATUZ GERO,
LOTU EGITEN ZAITU”

15

baleike.com

16

kultura
“BONBAK GIZONEK
BOTATZEN AL
DITUZTE?”

19

elkarrizketa
ANGEL MARI URANGA

29

agenda
URRIA - AZAROA

30

bertso xorta
MAIALEN VELARDE

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Zumaia Udalak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



gizarte

kutxa

“Probatuz gero, lotu egiten zaitu”

Body board-en ibili zalea, orain ezin du, duela hilabete gutxi istripu larria izan zuelako uretan. Osatzen dabil, eta laster itzuliko da naturarekin gozatzerara. Bitartean, badu lana, Europako bodyboard txapelketako proba antolatzen; herrian izango da, hil honen akabera.

TESTUA: AITOR MANTEROLA
ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Hasteko, zer moduz zaudete?

Oraindik osatu gabe erabat. Igerian hasi naiz, eta gero eta hobeto nabil. Korrika ere hasi naiz Pixkanaka hobetuz noa.

Eskapada latza, ezta?

Bai, handia. Landetan izan zen, La Gravier olatuan. Metroko olatuak zeuden, handiak ez, eta airean maniobra bat egin nuen, ez zidan denborarik eman eskuak jartzeko, eta buruarekin hondarra jo nuen. Gorputzaren pisu guztia buruaren gainera erori zitzaidan. Gero, uretatik ateratzeko prozedura etorri zen: anbulantziak, suhiltzai-leak...

Konortea galdu zenuen?

Neure kasa atera nintzen, baina zorabiatzen hasi nintzenean, eskerrak Alex [Alex Uranga] alboan zegoen. Frantziako argazkilari batzuk ere han zebiltzan, eta lagundu zidaten.

Zer puskatu zenuen?

Seigarren ornoa, eta horren eta zazpigarrenaren arteko diskoa ere bai. Gainera, bi orno horien artean de-



soreka izan nuen, mugitu egin ziren. Ebakuntza egin zidaten, aldakako hezur bat kendu eta diskoaren lekuan jartzeko. Disko horrek hezurarekin bat egingo du, eta plaka bat ere jarri didate lau torlojurekin. Aireportuetan, orain, pitatu egingo dit kontroletan [barrezka].

Zumaiako txapelketa goizegi izan da zuretzat. Ikusle izan zinen, eta uretan sartzeko irrikaz?

“Uretan sartzen naizenean ahaztu egiten ditut arazoak”

Bai, eta ez bakarrik txapelketan. Egunero nabil Itzurunen, eta inbidia pasatzen dut.

Noiz itzuliko zara uretara?

Urtea bukatzerako olatu txiki batzuk hartzeko moduan izango naizela uste dut, eta gero, pixkanaka, olatu handietan sartuko naiz.

Beldurrik ez?

Errespetua latza! Lehen ez neukan. Berriz hastea bezalakoa izango da, eta gehiago gozatuko dut, agian.

Zer sentitzen duzu olatu bat hartuta zoazenean?

Olatuaren gainean joatean, naturarekin bat eginda

noala sentitzen dut. Uretan sartzen naizenean, ahaztu egiten ditut arazo guztiak. Hori gustatzen zaio jendeari, tentsioa kentzea eta lasai egotea.

Zer moduz atera zen herriko txapelketa?

Oso ondo. Igandean jokatu genuen dena, larunbatean ez zelako olaturik. Orain, bodyboardeko eta surfeko probak txandakatu egiten ditugu, eta hobe da, denok bertan egoten garelako. Lehen, surfekoek ez zuten gurea ikusten, eta guk ere ez beraiena.

Lehia baino gehiago al du festatik zumaiarren arteko proba horrek?

Pikeak eta urduritasunak beti egoten dira, baina giro sana egoten da. Ez gara haserretzen.

Herrian jarraitzaile asko dauzka surfak eta bodyboard-ak. Zer dela eta?

Bietan ibiltzen gara asko, eta bodyboard-en gehiago. Beti egon dira onak herrian, eta haiei segika-segika zabaldu egin da zaletasuna. Behin



ANDONI IZAGA

Jaioteguna: 1988ko ekainaren 15ean

Ikasketak: Ingenieritza Tekniko Mekanikoa bukatuta, eta lan bila.

Erreferentzia bat surfean: Alex Uranga betitik. Askotan mugitu gara batera.

Olatu onena: Kanariar Uharteetan gozatu dut gehien, Fuerteventuran, olatu ezberdina da, eta jende gutxi egoten da.

Amets bat: Hawaira joan eta Pipelinen tubo bat egitea. Iritsiko da eguna!

probatuz gero, lotu egiten zaitu.

Ondo dabilen horien atzean zer dago, ordu asko sartzea edota berezko gaitasuna?

Berezko gaitasuna. Orduak sartzea lagungarria da, hobetuko duzu, baina berezko gaitasunik gabe ez zara helduko Alex Uranga baten mailara. Neguan egunero sartzeko egundoko ahalegina egin behar da, olatu txarrekin eta eguraldi txarrekin, eta horrek laguntzen du hobetzen, baina oso garrantzitsua da kanpora joatea. Hemengo olatua ona da, baina itsaso zabalean ibiltzeko kanpora joan behar da.

Itzuringo olatua ezaguna da body board-en munduan. Nolakoa da?

Euskal Herriko onenetakoa. Errebotea etortzen da ezkerretatik eta piko motzak eta indartsuak sortzen dira, maniobrak egiteko egokia. Surferako, akaso, ez da hain balekoa.

Hain ona izanik, kanpotik ere etortzen da jendea.

Olatu onak dauden egunetan pentsatu al duzu jende gehiegi zaudetela uretan?

Ba bai. Lehen, neguan lau katu ibiltzen ginen, baina orain, hogeit lagun ere elkartzen gara egun onetan, eta pikea sortzen da.

Urriaren azken asteburuan Europako bodyboard txapelketa jokatu da herrian. Txapelketa hemen bakarrik da?

Hiru probak osatzen dute txapelketa, eta bat Zumaiakoa da; beste biak Portugalkoa eta Marokokoa dira. Hemengoak eta Marokokoak banatuko dituzte puntu gehien.

Parte hartzeko rankinen batean egon behar al da?

Ez. Federatuta dagoen edozein atera daiteke. Gero, rankinak zehaztuko ditu serie-buruak.

Herritarrak ere izango dira, orduan. Zenbat?

Hamar bat edo. Gazteentzat egundoko aukera da, hamasei eta hamazazpi urtekoentzat, beren burua erakusteko

“Neguan egunero sartzeko egundoko ahalegina egin behar da”

paregabea. Gure garaian, Portugalera edo Frantziara joan behar izaten genuen Europako txapelketan aritzeko, eta hauei herrian bertan egokitu zaie, eta eza gutzen duten olatuan.

Herrikoen artean zeinek dituzte emaitza ona lortzeko aukerak?

Alex Uranga hemen izango da, eta puntan ibiliko da; Alex Odriozola ere ondo moldatuko da, eta baita Xabier Urrestilla ere.

Lehen aldia da halako txapelketa jokatzeko delat Zumaiar. Antolakuntzako lanetan zer moduz?

ZISKEko talde bat ari gara, eta Zarauzkoak ere ari zaizkigu laguntzen. Gehien bat, federazioa eta gu ari gara. Zaila da diru laguntzak lortzea, eta iaiztik ari gara horretan lanean. Eskerrak eman nahi dizkiet babesleei, eta ea ez den urtebeteko kontua izaten aurten txapelketa hemen jokatzeko.

Kanpotik datorrenak eusten al dio furgonetan etortzeko ohiturari, ala zabaltzen hasita dago hoteletan eta halakoetan lo egiteko joera?

Eusten zaio ohitura zaharrari, surfistak itsasoaren ondoan lo egin nahi izaten duelako. Bestelakoak ere bada, eta Kanariar Uharteetatik eta Marokotik datozenek lotarako lekua aurkitzen lagunduko diegu. Oso surfista gutxi dira hoteletan eta ibiltzen direnak.

Zenbat parte-hartzaile izango dira?

60 inguru. Open maila izango da, irekia, eta frantziarrak, kanariarrak, marokorak eta portugaldarrak espero ditugu kanpotik. ■

KATALUNIA: IDENTITATEAREN ALDARRIKAPENA

Katalunia albiste iturri bihurtu da azkenaldian. Independentzia aldarrikatuz kaleak jendez bete zituen Diada hartatik, egunez egun sortzen dira berriak. Han bizi diren zortzi zumaiarren lekukotzak bildu ditugu, Katalunian gertatzen ari dena ulertzen lagun gaitzaten.

TESTUA ETA ARGAZKIAK:
ENEKO DORRONSORO





la Bizitza osoa darama Maria Jose Balenziagak Katalunian. 1965ean joan zen Bartzelonara bizitzera: “Lehengusu baten ezkontzara etorri eta bertan gelditu nintzen lanean. Ondoren hemen ezkondu... Eta hemen nago oraindik! Baina joaten naiz Zumaia, eh, asko. Nire bizitza da Zumaia; barruan daukat”. Gogoan du oraindik medikua-rengana joan eta pasatako estualdia: “Telefonican lanean hasteko medikuaren errebisioa pasa behar izan nuen. Betaurrekoak erabiltzen ditut. Ikusmena aztertu eta medikuak ez zion garrantzirik eman. Gelatik irteten ari nintzela, ‘Gora Euskadi!’ esan zuen. Nik, dardara batean, ‘Gora!’ erantzun nion. Lehen ezin zen halakorik esan...”.

Agustin Esnal 1976an iritsi zen Kataluniara, “Franco hil eta hurrengo urtean. Ez dut, beraz, sekula botorik eman Euskal Herrian”. Gaur egun Cerdanyolan bizi da. Arantxa Uranga eta Esperanza Rodriguez dira beste “beteranoak”. Arantxa 1983an joan zen eta gaur egun Cambrilsen bizi da. ERCren zerrendetan aurkeztu zen aurreko udal hauteskundeetan. Esperanza duela 26 urte irteten zen Zumaia, aurrea Tenerifera; duela 14 urte “bizitza sentimentala berregin” eta Bartzelonan bizi da ordudunik. “Hala ere, ez dut inoiz etxera itzultzeko ilusioa galtzen”.

Jonjo Agirrezabalaga ere “bikoteak erakarritan” joan zen Bartzelonara bizitzera, 2004an. Gaur egun, kirol teknikari da Diputazioan. “Katalunian *el basc* naiz, eta Euskal Herrian katalana”. Nerea Eizagirre, Miren Lopetegui eta Miren Agirre ikastera joan ziren Bartzelonara, duela hiru urte. Literatura ari da ikasten Nerea. “Ikastera etorri baintzen ere, gaur egun iruditzen zait hemen bizi naizela”. Miren Lopetegui eta Miren Agirre arkitektura ikastera joan ziren, baina Lopetegik filosofia aldatu du. “Ikasketak amaitu arte hemen geldituko gara”.

Zortzi zumaia, bakoitza bere bizi esperientziarekin, bere ideia eta ikusmoldearekin. Badirudi Kataluniatik Zumaian baino naturaltasun gehiagoz hitz egiten dela independentziaz.

“Lehenengoak dagoeneko ez du balio”

Agustin Esnal eta Arantxa Urangaren hausnarke-tek lagun diezagukete aurrekariak ulertzen. Zer gertatu da azken hamarkadetan hona iristeko? “Hiru manifestazio handi oroitzen ditut nik”, dio Agustinek, “honako goiburuekin: *Llibertat, Amnistia, Estatut de Autonomia* (1977); *Som una nació, nosaltres decidim* (2010); eta azkena irailaren 11koa, *Catalunya, non estat D’Europa*”. Bilakaera nabarmena da: “Kataluniak autogobernu gehiago eskatzen du, eta kronologia horretan ikusten da gero eta

aldarrikapen subiranistagoak egin dituztela”. Agustinen iritziz, Espainiako Konstituzioaren sorreran egon daiteke gaur egun bizi den egoeraren giltza: “Ordutik fiskalitatearen gaiarekin dabilta bueltaka”.

Arantxa Urangak uste du kataluniarrek “frustrazioa” sentitzen dutela. “Alde batetik, frustrazio kolektiboa, hemen adostutako erabakiei Espainiak ez dielako inolako kasurik egiten”. Estatuta litzateke horren adibide nabarmena. “Tripartit-aren garaian (PSC, ERC eta ICV) estatutu berria onartu zuen Kataluniak adostasunez, baina Espainiako Auzitegi Konstituzionalak zati handi bat legez kontraktatzat jo zuen”. Erabaki horren aurka deitu zen, hain zuzen ere, 2010eko manifestazioa (*Som una nació, nosaltres decidim*).

Baina norbanakoen frustrazioa ere sumatzen du Arantxak, hain agerikoa ez den arren. “Kataluniarrak sentitzen du ez dela ulertua, bere eskaera identitarioak beti interes ekonomikoekin lotzen direlako. Gaur egungo egoeratik ikusita, bistakoa da krisi ekonomikoak aldarrikapen nazionala

areagotzen lagundu duela, baina aldarrikapen hori lehendik ere existitzen zen”. Azken 15 urteotan Kataluniatik saiatu omen dira pedagogia lana egiten, baina Arantxak dio Espainian ez duela fruiturik eman: “Ez dute ulertzen independentzia nahiaren arrazoiak ez dela ekonomikoa, identitarioa baizik”.

Itun fiskala

Gaur egun bizi dugun krisi ekonomikoaren ondorioz, azken bi urteotan Katalunian erreforma eta murrizketa gogorrak ari

dira pairatzen, eta herritarren zein alderdi politikoen artean hedatzen ari da injustizia sentsazioa. Agustín: “Salatzten dute Kataluniak ematen duena baino gutxiago jasotzen duela. Eta hemen azaleratzen zaigu berriro Espainiako Konstituzioa idatzi zenean adostu gabe utzitakoa: Kataluniak ez du kontzertu ekonomikorik, Madrildik kudeatzen dira haien diruak. Itun fiskal bidezkoagoa eskatu du Kataluniak”.

2012ko irailak 11

Hamarkadaz hamarkada areagotu zaien frustrazio horrek 2012ko irailaren 11n egin zuen eztanda: milioi eta erdi herritar bildu ziren Bartzelonako kaleetan, inolako konplexurik gabe independentzia aldarrikatzeko. Hurrengo egunetan itun fiskala aldatzeari ezezkoa eman zion Madrilek. Eta herriak altxatutako olatuari segi nahian, Artur Mas presidentek hauteskundeak deitu ditu azaroaren 25erako, emaitzen arabera “independentzia bai ala ez” erreferenduma deitzeko xedea-



rekin. Espainiak onartu ala ez. “Ikusi nahi dut CIU muturreraino iristeko gai ote den”, esan du Agustinek. Beste alderdien jarrera garbiago ikusten du: “Sozialistek bide federala hartu dute; ikusi beharko da sektore ekonomiko eta finantzarioek nola erreakzionatzen duten”. Arantxa Urangak uste du Mas presidentea ondo betetzen ari dela tokatu zaien papera, “politikoki zuzena” izan daitekeena albo batera utzita. “Eta ICVren jokaera ere azpimarratu nahi dut, bere etsai publiko den Artur Masek aldarrikatutako autodeterminazio eskubidea babestu baitu”.

“Manifestazioa, izugarria”

Jonjo Agirrezabalaga, Nerea Eizagirre, Esperanza Rodriguez, Maria Jose Balenziaga, Miren Lopetegui eta Miren Agirrek Diada eguneko manifestazioa bertatik bertara bizitzeko aukera izan zuten. “Izugarria izan zen”, dio Jonjok. “Irakeko gerraren aurkako manifestazio hartan ere ez dakit hainbeste jende ba ote zegoen. Etxetik irten, Gran Viatik jaisten hasi

▲ AGUSTIN ESNAL

1976. urtean heldu zen Kataluniara eta ez du inoiz botorik eman Euskal Herrian.

◀ ARANTXA URANGA

1983tik Katalunian, ERCren zerrendetan aurkeztu zen aurreko udal hauteskundeetan.

▼ JONJO AGIRREZABALAGA

2004tik bizi da Bartzelonan eta Diputazioan egiten du lan kirol teknikari bezala





► ESPERANZA RODRIGUEZ

14 urte Bartzelonan bizitzen, ez du inoiz etxera itzultzeko itxaropena galdu.

eta handik Rambla Catalunya... Ezin izan genuen aurrerago jarraitu”.

Miren Lopetegik eta Miren Agirrek gogoan dute Diadaren eguna hurbildu ahala etxeetako balkoiak banderaz betetzen hasi zirela. “Gure etxean beti jartzen dugu. Batzuetan, gainera, ikurriña ere bai. Biak”, azaldu du Maria Jose Balenziagak. Manifestazioan ere izan zen Maria Jose: “Lagun batekin joan nintzen eta zoragarria izan zen. Jendea oso ondo portatzen da, eta ez da iskanbilarik izaten”. Lopetegi eta Agirre: “Jendea etortzea espero zuten, baina hainbeste...”. Agirrezabalaga: “Katalunia senyerarik gabe gelditu da, zioen jendeak. Denak saldu ziren. Eta estelada pilo bat ikusten zen, horrek harritu ninduen”.

Rodriguezek uste du manifestazioan parte hartu zuten guztiek ez dutela kontzientziarik independentziak bere osotasunean zer dakarren: “Milioi erdiak izango zuen horren kontzientzia, baina gainerako milioia, nekatuta, etsita dagoen jendea da”. Lopetegik eta Agirrek ere uste dute egoera ekonomikoak jende asko bulztatu zuela manifestaziora, baina ez horrek soilik: “Espero beste zentzu batzuetan ere nazkatuta egotea!”.

Independentziara bidean

Manifestazioaren ondorio zuzena izan da Artur Mas presidentek hartutako erabakia: hauteskundeak aurreratu, ondoren erreferenduma deitzeko. Independentziari buruzko erreferenduma eginez gero, emaitzari buruz zalantzak ditu Jonjok.

“Kataluniak ez du kontzertu ekonomikorik, Madrildik kudeatzen dira haien diruak”

“Ez daukat garbi, Katalunian zein Euskal Herrian, erreferenduma egingo balitz zer emaitza aterako litzatekeen. Ez nuke baiezkoa ziurtatuko. Baina garrantzitsua litzateke aukera lortzea”. Eta Artur Masen hitz batzuk ekarri ditu gogora: “Katalunia Espainiaz nazkatuta dago, baita Espainia Kataluniaz ere”. Esperanzak ere Madrilgo lagun batekin izandako elkarrizketa aipatu du: “Kataluniarrek independentzia nahi dute, baina ez diegu baimenik emango.

—Baimena eman? Inork ez dizue baimenik eskatu”. Miren Agirre eta Miren Lopetegi: “Independente izango direla diote, bost urtean gauzak asko aldatu direla. Lehen ez zirela gehiengoa, baina orain itxuraz bai... Ezinezkoa omen da inguruko herrialdeak ez konturatzea, nahiz eta konturatzen azkena Espainia izango den”. “Haientzat Euskal Herrian zein Katalunian egiten den ezerk ez du baliorik, legez kanpokoa da”, osatu du Maria Jose Balenziagak. “Eta gauza bat esango dizut: nazionalistenak beraiek dira”.



Krisia eta ezkerreko erreferenteak

Nazionalista eta independentista izatearen artean diferentzia egiten du Esperanzak ordea: “independetista izateko ezkertiarago izan beharra dago”. Nazionalistak aski omen du ekonomikoki gobernatzeko aukera izanda, “beste zenbait



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943 862 309



Alai auzategia 8
20750 Zumala (Gipuzkoa)

Diseinu zerbitzuak
tel.: 943 14 31 22

Kopiak eta materiala
tel/Faxa: 943 14 31 20

a3 kopia eta diseinu zerbitzuak
a3zumala@terra.es



L I B R U D E N D A

AITA-MARI AUZATEGIA, 17
tel. 943 861 569



Astelehenetik igandera 08:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 22:00etara, urte guztian.
Etxera banaketa doan

Alai auzategia, 3 • 943 118 394

ALBERDI
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188
943 143261



Pladar dulce, corazón sano
Aho bete gogo, bihotz bete osasun



ALGORRI TABERNA
ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA



Ignacio Zuloaga enparantza
tel. 943 861 157 anastaeakozapiak@telefonica.net



D'Ana
Kantauri plaza, 6. behea
tel. 943 117 408

Ardantzabide
ALTZARIAK-AROZTEGIA

www.ardantzabide.com

Erakusketa. Hego kalea, 4-5
Denda. Txomin Agirre, 4
Tel.: 943 862 532


Aroztegia: Santiago, 40
Tel.: 943 861 631

ARGISUN
ENERGIA-KONPONBIDEAK

- Berokuntza sistemak
- Giroitza
- Iturgintza
- Energi berritzagarriak
- Eraginkortasun energetikoa

Basadi auzategia 5
tel. 943 861 995

www.argisun.com
info@argisun.com



OKINDEGIA
ZUMAIA
OGI-EDER



ARRUTI
Baltasar Etxabe z/o
Zumaia 943016429



AUTOS ZUMAIA

Urola plaza, 3-5
tel. 943 861 485



Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25
20749 Arroa

tel./faxa 943 148 306
bakun@euskalnet.net



Basadi albaitaritza
Ribaitaria
Iñaki Garmendia

Basadi, 7, behea - tel. 943 143 310
webmaster@basadialbaitarizta.com
www.basadialbaitarizta.com

Golez: 11-13 / Arrabaldiz: 16-19:30 / Astelehen goizean eta larunbatean itxia
Lamiakidetasun: 605 728 737 Etxez ebeko zerbitzua

BASUSTA
ERRETEGIA



Patutia Etxezarreta, 25
tel. 943 862 073



Braky's
Okindegia Katedegia

Izaga kalea, 2
20750 Zumala (Gipuzkoa)
Tel.: 943 57 07 79
Móvil: 649 967 289

Kataluniako banderak: senyera eta estelada

Kolorez Espainiako banderaren berdina da Kataluniako “senyera”. Diferentzia bakarra marra kopuruan dute. Antzekotasun hori dela medio, XX. mendearen hasieran, kataluniar independentistek “estelada” asmatu zuten, garai hartan Kubak Espainiarekiko lortu berri zuen independentzia sinbolotzat hartuta: senyerari ertz batean izar bat gehitu zioten. Hasierako estelada hartan zuria zen izarra, eta Kubako banderak bezala, hiruki urdin bat zuen azpian. Gerora, eta ezkertiar mugimenduetan, izarra gorri bihurtu zuten eta azpiko hirukia hori koloreko.

Estelada batek zein besteak iraungitze epe bat dute, ordea: Kataluniaren independentzia eguna. Egun hartan kentzekotan ezarri baitzioten independentistek izarra senyerari, behin independentzia lortuta, Kataluniako banderak Espainiakoaren konplexurik izango ez duela-koan.



gauzatan Madrilén menpe egon behar badu ere! Paktu fiskala izan balu CIUK ez zukeen independentziaz hitz egingo". Hari beretik tiraka Nereak: "Irteera politiko gisa saltzen da, independentziarekin salbazioa etorriko bailitzan". Eta Masek darabilen eslogan bat oroitu du: Espanya ens roba. "A, bai? Espainia osoak lapurtzen al digu? Asturiasko meatzariek?"

Independentziaren bidean eredu soziala planteatzea falta omen da, eta Arantxaren errefexio batekin egiten du bat: "Askapen nazionala ala askapen soziala? Hara hor betiko galdera. Biek elkarrekin behar luketen arren, oso zaila da hori lortzea, eta Masekin ezinezkoa". Ezkerrera begira jartzen gaitu honek, eta Esperanzak alternatiba falta su-

matzen du. Nereak aztertzen egoera: "Hemen kontua da frankismoaren ondotik ez-kerra instituzionalizatu egin zela, ERCren (Esquerra Republicana) bidetik. Orain ari da gorpuzten berriz herri mugimenduan oinarritutako ez-kerra". CUP alderdi sortu berriaz hitz egin digu, indarra hartzen ari omen da, baina oraingoz ez-kerra zatituta eta batzeko aukera gutxiarekin ikusten du: "Zergatik ez du 15M-k Euskal Herrian indarrik izan? Han ezkerreko jendeak badauka alternatiba garbi bat. Hemen ez ordea".

Hauteskundeak Katalunian

Berehala datoz hauteskundeak. Eta han ateratako emaitzek baldintzatuko dituzte hurrengo urratsak. Masek aurreratu du, gehiengoa lortuz gero, erreferenduma deituko duela, "legeak baimendu ala ez". "CIUK lortu duena da inguruko alderdi guztiak bustiaraztea, eta politikan hori lortzea ez da gutxi", deritzo Nereak. Jonjok, ordea, zalantzak ditu aurrera begira CIUK izan dezakeen jarrerarekin: "Oraindik ez dut CIU garbi hitz egiten ikusten. Bi alderdi izatearen (Convergencia eta Unio) anbiguetatearekin jokatzeko dute. Artur Masek gauza bat esaten du hemen eta Duran i Lleidak Madrilén beste bat". Gainera, Jonjok garbi dauka CIUK ez duela izango independentismoaren "esklusiba". "Ekonomiari dagozkion gaietan desadostas-



▲ MIREN AGIRRE

Arkitektura ari da ikasten Bartzelonan.

◀ MIREN LOPETEGUI

Arkitektura ikasten hasi zen eta filosofiagatik aldatu zuen.

▼ MARIA JOSE BALENZIAGA

1965. urtetik bizi da Katalunian eta orain erretiratuta dago.



Soluzioak
gipuzkoarren esku

BOZKATU
ehbildu






▼ NEREA EIZAGIRRE

Literatura ikasten ari da. Ikastera joan bada ere, bertan bizi dela iruditzen zaio.

nak egongo dira alderdien artean, baina independentziaren puntuan adostasuna lor daiteke, eta horrela neurtu behar dira emaitzak: independentziaren aldekoak eta aurkakoak”.

Independentziaren alde edo kontra aukeratu behar horretan, Kataluniako alderdi sozialistari begira dago bat baino gehiago. “Ea PSCK zer posizio hartzen duen... PSEk ez bezala, PSCK badu zati katalanista bat; Maragall da erreferentzia”, dio Nereak. Esperanza: “Orain arte, Katalunian integratu ez arren Katalunia ezberdin ikusten zuen jendearen alternatiba izan da PSC; baina orain PSOEk irentsi egin du ia, eta horrek emaitzetan kalte egingo dio”. Jonjok ez daki zer gertatuko den ERC eta ICVrekin. Eta CUPEk oraindik ez du erabaki hauteskundeetara aukeztuko ote den. Baina badirudi gaurkoz ezker-eskuin borrokak utzita, independentziaren bidean bilduko direla guztiak.

“Ez daukat garbi, Katalunian zein Euskal Herrian, erreferenduma egingo balitz zer emaitza aterako litzatekeen. Ez nuke baiezkoa ziurtatuko. Baina garrantzitsua litzateke aukera lortzea”

**Euskal Herria begira**

Katalunia eta Euskal Herria; Euskal Herria eta Katalunia. Ekidinezina da bata besteari begiratzea, aldarrikapen berberak baitaude mahai gainean. “Euskaldunak beti aurretik doazen pentsamendua dute Katalunian, baina orain urrats handia egin dutenak beraien izan dira”, dio Maria Josek. Esperanzak uste du Kataluniak hartu duela ekimena, eta Euskal Herria zer gertatu zain dagoela: “Nire ingurukoek, lankideek, posizionatzeko eskatzen didate. Lau urtean inoiz entzungabekoak esan dizkirate hamabost egunean”. Euskal Herrian ere aurrera egiteko unea dela uste du Jonjok: “ETAren su etena dela eta, Euskal Herrian ere bidea erraztuta dago orain. Nik uste dut aprobetxatu egin behar dela. Katalunia jotzen ari bada, jo beste aldetik ere! Inportantea da kanpoko jendeak ikustea Espainia ez dela Espainia bakarrik, badaudela Katalunia eta Euskal Herria ere, eta biak ari direla helburu baten bila”. Nerea Eizagirreren iritziz, “une egokia da gurean ere diferentziak albo batera utzi eta herri bezala biltzeko”. ■

BEDUA ITURGINTZA S.L.

ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Korta Industriegunea, 9
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
tel. 943 143 369

EGOKI



Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943 861 787



BEHEKO PLAZA

taberna-jatetxea

- Eguneko menua
- Karta
- Pizzak
- Taldeentzako menu bereziak

BERRITUA

Eusebio Gurrutxaga plaza
Tel. 943861700



SAGARDO EKOLOGIKOA

www.ekainsagardoa.com • Tel.: 943 148 033



Erribera kalea, 6 20750 Zumala tel. 943 143 097
ekinsl@ekinsl.com www.ekinsl.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet



DIGITAL+



ERNIO TABERNA

V. Arrate, 3

Tel. 943 860 045



ERROTA
OPIL-OKINDEGIA

SANTILLO AUZOA, 32

20750 ZUMAIA

TEL: 943860000

943860612

FAX: 943860977

errotat@errotat-okindegia.com

ERTZ INFORMATIKA

Portatilak
konpontzeko
zerbitzu berria

Eskatu sarekonfiantza
konpromisorik gabe,
DOAN



Beheko plaza

tel./faxa: 943 143 395



PAPER diseinu grafikoa

Roberto Gutierrez

696 211 111 • rgutierrez@rgutierrez.org • www.rgutierrez.org

Galdona



burdindegia

Mendara marmela, 1
Juan Belmonte, 15

tel. 943 861 117 - 943 143 346
faxa 943 861 330

GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057



GAZTE, S.L.

ELEKTRIZITATEA

Era gutietako instalazioak etxebizitza, pabiloi eta herriko argietan

Trenbide pasealekua, 5. pabilioia

tel./faxa 943 143 402 mugikorra 610 262 617



kafetegia

Txomin Agirre kaia

Tel. 943862181



GOIKO TABERNA

Erribera, 9

tel. 943 861 391

Ikastegi homologatua

Golden Gate

Institute
hizkuntza eskola



Erribera kalea 1 bis, beheka
tel./faxa 943 865 020

goldengateinsti@telefonica.net



Patinetan baino azkarrago

Patinen erakustaldia izan zen aurtengo Zakila Biran, baina benetan azkar ibili zena Hicham el Amrami marokoarra izan zen. Errekorra minutu batean hautsi zuen. Emakumeetan Cristina Loeda izan zen irabazlea. Baleike.comen duzue lasterketako sailkapena eta argazki erreportajea.



Olatoen gainean hegan

Herri mailako surf eta bodyboard txapelketak jokatu ziren irailaren amaieran Itzurunen. Parte-hartzaileen maniobra ikusgarriekin goatzeko aukera izan zuten bertara hurreratu zirenek.


Bandaren kurtso hasiera

Ez hori bakarrik; beste leku bat zabaldu du musikarako: San Telmo kaleko plaza. Bideoan duzue kontzertuko une bat

ARGAZKI BILDUMAK



Surf eta Bodyboard Txapelketa 2012.



Samielak 2012.



Goiatz Aguado Zinemaldian.





“BONBAK GIZONEK BOTATZEN AL DITUZTE?”

Zinemaldia. Alfonbra gorri batek lotzen ditu Maria Cristina hotela eta Victoria Eugenia antzokia, baina gaur izarrak limousinean eramango dituzte: euri zaparrada ari du Donostian. Pelikuletako autora igo dira Sara Casasnovas, Egoitz Sanchez, Aitor Mazo... Haiekin batera, neskato begi urdin bat. Denek babesten dute, denak ditu begira. Bi ordu geroago: amaitu da pelikularen estreinaldia. Isildu dira txaloak, itzali dira argiak, amaitu dira argazkiak. Biharamunean: “Zer moduz egin duzu lo?” galdetu du amak. “Ondo. Baina triste nago”, neskato begi urdinak. “Triste? Zergatik?”. “Uste nuen bonbak bakarrik erortzen zirela. Gizonek botatzen al dituzte?”. Goiatz Aguado Atxega du izena, zazpi urte ditu, eta *Gernika bajo las bombas* pelikulako protagonisteko bat da.

TESTUA: GORKA ZABALETA

“Horixe da honek guztiak izan dezakeen parterik txarrena, umeek xalotasuna galtzen dutela. Pelikula grabatzen ari ziren bitartean, berak *bonbak* lehertzen ikusi zituen, eta kito. Pelikularen estreinaldian ohartu zen bonba haiek gizonek botatakoak zirela... Orain, telebista aurrean dagoenean, pelikula bat ikusten edo, galdetzen diozu ea beldurrik ematen dion eta ezetz erantzuten dizu, badakiela dena gezurra dela, badakiela nola egiten duten”. Gainerakoan, Goiatzen gurasoak pozik daude umeak orain arte egin duen bidearekin. “Umeak oso jarrera ona dauka. Gozatu egiten du, ikaragarri gustatzen zaio mundu hau. Gainera, ez da batere harrotu; are gehiago, ez zaio batere gustatzen lanari buruz galdetzea edo ezer aipatzea”, azaldu digu Montse Atxegak, Goiatzen amak.

Gernika bajo las bombas da Goiatzen lehenengo luzemetraia –Edurne pertsonaiaren papera egiten du–. Orain arte, lan gehienak publizitate kanpainetarako egin ditu. Bi urte eta erdirekin desfilatu zuen lehen aldiz pasarela gainean. “Kursaalen izan zen, Donostiako dende antolatutako ekitaldi batean. Lagun baten bidez sortu zitzaigun aukera, eta horrelaxe hasi zen”. Gerora, hainbat katalogotarako argazkiak egin ditu. *Euskadi turismo* kanpainako irudietako bat izan da, eta telebistan agertzeko aukera ere izan du –Oscar Terolen saio batean–.

“Pelikula hau egiteko aukera etorri zen arte, lan txikiak egin zituen”. Pelikula hau, ordea, diferentea izan da. “Errodajea oso gogorra izan zen. Hamabost egun izan ziren, maiatzean eta ekainean. Lan saio luzeak. Egun batean, hamar ordu egin zituen Goiatzek Aiako Harrian, goizeko bederatzietatik arratsaldeko zazpietara. Sekulako beroa egiten zuen, mendian gora eta beheara ibili ziren korrika, garai bateko soinekoekin... Baina oso ondo aguantatu zuen, batere kexarik gabe”. Okerrena, errodajea amaitu eta eskolako lanak egin behar. “Garai txarra egokitu zen, kurtso amaiera, baina, hala ere, berak oso ondo eraman du; oraingo, behintzat, ez dio eskolako martxan eragin”.

Goiatzen gurasoek badakite pelikula honek ate berriak zabalduko dizkiola alabari. “Badakigu eskaintzak etor daitetzkeela. Probaren bat egin dugu dagoeneko. Agentzian ere interes bereziarekin landu nahi dute Goiatzen ibilbidea, ez daudelako zinemaren munduan lan egin dezaketen ume asko. Gainera, profesionalek esaten digute balio duela, sena daukala. Dena den, pixkanaka joango gara, proiektuak etorri ahala hartuko ditugu erabakiak”. ■



GOROSTI BODEGA
 ELORRIAGA AUZOA, DEBA, GIPUZKOA
 Tfno: 670408439 Juan M^a Echave
 692605223 Isabel Etzaniz

flysch
 txakolina

Geluriako Txakolina
 DENOMINACIÓN DE ORIGEN

Cure-Txokoa
 aberna



Upela plaza, 4
 20750 Zumai
 Tel.: 943 86 09 70

English School

Harvest

...eta udaran Ingalaterrara ingelesa praktikatzera

San Jose, 11 bis tel. 943 143 334

API

ibai gain
 inmobiliaria

Ricardo Azkue
 API 399

Txomin Agirre 4, behea
 tel. 943 862 651
 faxa 943862748

rijazcue@euskalnet.net

ilarxi



Alai auzategia, 2
 Tel. 943 24 50 20

INPERNUPE
ELKARTEA



Erribera kalea 16. Tel. 943 861 523

IRUITZ



Ileapaindegi Mistoa

San Telmo, 12 • 20750 ZUMAJA (Gipuzkoa)
 Tel.: 943 860 760

ITSASKI
SUPERMERKATUA

Urumea kalea z.g. tel. 943 143 058

Itzurun, S.L.
 Aroztegia

Ateak, leihoak, tarimak, armairu enpatatuak...

Itzurun Zuhaitzibidea, 2 behea
 Tel. / Fax: 943 86 15 65

ORRAZTEGI ZUMAI



943 862 083

JUARISTI
 jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
 Eguneko menua
 Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943 861 853

Xaia


Pintxoak eta otartekoak




Txomin Agirre kala, 8

KABI Patata Etxezarreta, 15
 943 117 427

TABERNA



Kaithermik S.L.



Arotzeria metalikoa
 Aluminiozko leihoak ZTH-rekin,
 PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943860320

kalari



Upela plaza, 8
 tel. 943 862 517

KANTAU
TABERNA

Pintxoak • Plater Konbinatuak • Kazolatuak

Kantauri plaza, 4 behea • Tel. 943 575 840

Kresala
 Taberna



Julio beobide 3, tel. 943 019 869

“IKARAGARRI BERO ZEGOEN ZOPA MODUKO BAT ZEN HASIERAN UNIBERTSOA”

TESTUA: GORKA ZABALETA

Nondik gatoz? Zer gara? Nora goaz? Gizakiak betidanik bere buruari egin dizkion galderak dira. Batzuek erlijioan edo filosofian bilatzen dituzte erantzunak. Beste batzuek, zientzian. Bilaketa lan horretan dabil Angel Mari Uringa, fisika teorikoaren eskutik.

Ezagutzaren mugetan egiten du lan Angel Mari Uringa (Zumaia, 1970) fisikariak. Esperimentazioaren bitartez oraindik demostratu ezin daitekeena irudikatzen, esploratzeke dauden lurraldeen mapak sortzen. Ez dauka zerikusirik guk zientzialariek daukagun irudiarekin: ez du egun osoa laborategian pasatzen, esperimentuak egin eta egin... “Mugako zientzia da fisika teorikoa. Formulazio matematikoetan oinarritzen gara, oraindik ezagutzen ez duguna nolakoa izan daitekeen maila teorikoan planteatzeko”.

Nola sortu zen unibertsoa? Zer gertatu zen lehen une haietan? Horiek dira zientziak erantzun nahi dituen galderarik potoloenak, eta horretan ari da Uringa, Fisika Teorikoko UAM/CSIC institutuan (Madril, Espainia). “Kontu haiek betidanik interesatu zaizkit. Gogoan daukat gaztetxoa nintzelarik gaiari buruzko liburu bila ibiltzen nintzela. Orduan ez zegoen Internet... Irakasleei galdetzen nien unibertsitatean nondik jo beharko ote nuen partikulen fisika ikasteko, eta ez zegoen batere garbi”. Azkenean, Leioan hasi zituen fisika ikasketak, eta Madrilen amaitu. Ondoren, Estatu Batuetan eta Suitzan egin zituen hainbat urte. “CERN laborategian urte batzuk egin nituen, ikasten aurrea eta ondoren lanean, eta oraindik harreman estua mantentzen dut, noizean behin joaten naiz hango berri jakitera”.

Espazio sakonaren irudia, Hubble teleskopioak hartutakoa. Gure begirada aurrean beltz kolorekoa agertzen dena, galaxiaz beteta dago.

Unibertsoaren sorrera esplicitzeko inoiz egin den ahaleginik handiena da, hain zuzen ere, CERN laborategia. Uda aurretik mundu osoko komunikabideetako lerroburuak bete zituen, Higgsen partikula aurkitu zutelako. Gehienoi gai arrotza zaigu fisika, ulergaitza. Are gehiago mugako fisika. Urangaren, kazetariaren eta irakurlearen ahaleginak ez daitezela alferrikakoak izan.

Zientziak zer daki unibertsoaren hasieraz?

Hasieran unibertso osoa puntu matematiko batean zegoen bilduta, kontzentratuta. Unibertso mikroskopiko hartan zegoen gerora unibertsoko galaxia, planeta eta izarrek osatuko zituen materia guztia. Badakit zaila dela ulertzen... Gaur ezagutzen dugun unibertsoa puntu mikroskopiko batean bilduta... Baina badakigu hala zela.

Nola dakizue?

Badakigu galaxia guztiak elkarrengandik urruntzen ari direla, galaxien arteko tartea zabaltzen ari delako. Denboran atzera egiten badugu, ikusten dugu distantzia guztiak puntu bakar batean kolapsatzen direla, unibertsoaren zero unean. Hasieran. Ulergaitza da, badakit...

Eta nolakoa zen unibertso “mikroskopiko” hura?

Ikaragarri bero zegoen zopa moduko bat zela uste dugu, eta han zeuden gaur egun ezagutzen ditugun oinarritzko elementu guztiak disolbatuak. Atomoak, nukleoak, protoiak... Dena zegoen zopa bero hartan urtuta. Ez dakigu unibertsoaren tamaina zehatza, tenperatura zehatza... Fisikak, oraingoz, esaten digu unibertsoa infinitu txikia zela, energia infinitua zuela... Erantzun zehatzak oraindik ez dauzkagu.

Baina adina kalkulatu diozue unibertsoari...

Bai, erabateko zehaztasunarekin dakigu 13.700 milioi urte dituela.

Eta zer gertatu zen duela 13.700 milioi urte puntu mikroskopiko batean kontzentratutako zopa bero hartan?

Big Bang-a deritzona. Puntu mikroskopiko hark “eztanda” egin zuen une jakin batean, eta hedatzen, zabaltzen hasi zen, etengabe. Baina ez dakigu zer gertatu zen ezteandaren unean, horraino ez gara oraindik iritsi. Eta hori da, hain zuzen ere, zientzialariok daukagun erronkarik handiena, unibertsoa nola sortu zen jakitea.

Baina CERNeKo laborategian egindako esperimentuei esker, asko gerturatu zarete...

Segundo baten frakzio bateraino hurbildu gara. Bai, esan genezake unibertsoaren bizitzari buruz ia dena ezagutzen dugula, baina garrantzitsuena falta zaigu: nola hasi zen dena.



ARNAITZ RUBIO APREA

FISIKARIA

*Fisika Teorikoko UAM/CSIC
institutuan egiten du lan, Madril.*

“Unibertsoaren bizitzari buruz ia dena dakigu, baina garrantzitsuena falta zaigu: nola hasi zen dena”

Orduan, Big Bang-agertatu eta segundo baten frakziotik aurrera gertatutakoaz badaukazue informazioa. Kontatuko al diguzu?

Unibertsoaren lehen uneak azaltzen dituen liburu oso interesgarria idatzi zuen Steven Weinberg Nobel saridunak: *Unibertsoaren lehen hiru minutuak*. Lehen esan dugu hasieran zopa bero bat zela unibertsoa. Protoiez eta neutroiez zegoen osatuta.

Protoiak eta neutroiak beraien artean elkartzen dira atomoen nukleoak sortzeko; lehen une haietan ere hala gertatzen zen, baina nukleoak segituan disolbatzen ziren, artean unibertsoa oso bero zegoelako. Baina unibertsoa, hedatu ahala, hozten hasi zen. Materia sakabanatzearekin batera, tenperatura jaitzen hasi zen. Eta iritsi zen une bat, non protoiek eta neutroiek osatutako nukleo haiek ez ziren gehiago disolbatzen, iraun egiten zuten. Horrela sortu ziren lehen nukleoak, arinenak: hidrogenoa eta helioa nagusiki, litio pixka bat... Hori guztia unibertsoaren lehen minutuan gertatu zen. Hortik aurrera-koak, planetak, galaxiak eta beste nola sortu ziren, nahikoa ondo dakigu. Hasierako frakzio hori da oraindik deskubritzeko dagoena. Hor dago oraingoz muga.

Azeleragailua, inoizko esperimenturik **handiena**

Suitza eta Frantzia artean dago Ikerketa Nuklearreko Europar Erakundeak (CERN), mendi arteko lautada batean. Partikulen fisika aztertzeko inoiz eraiki den laborategi handiena da. Nazioarteko elkarlanaren adibide esanguratsuenetakoa da, mundu osoko ehunka zientzialarik egiten baitute lan sarean. Azpiegitura ikaragarria da, eta hainbat herrialdek urtero egiten duten diru ekarpenarekin finantzatzen da. “Gizateriaren historian inoiz egin den esperimenturik garrantzitsuen da”, dio Urangak.

Laborategiaren muina lur azpian dago: 27 kilometroko zirkuitua osatzen duen tunel biribila. “Lur azpian eraiki zen, esperimentuetan sartutako partikulak ez nahasteko erradiazio kosmikoarekin”. Tunelak lau metroko diametroa du, zientzialariak barruan mugitu eta piezak jartzeko espazioa izan dezaten. “Tunelaren barruan dago azeleragailua. Protoiak ahalik eta azkarren mugiaraztea da bere lana, energiaz


“11.000 bira ematen dizkiote zirkuituari segundoko; ia argiaren abiaduran doaz”.

Behin partikulak biraka dauzkagula, elkarren arteko talkak lortu behar dira. “Partikula batzuk norabide batean jarriko dira biraka, eta beste batzuk kontrakoan. Bakoitza errail batean. Zirkuituko lau puntutan bi errailan gurutzatu egiten dira, eta hor gertatuko dira talkak”. Puntu horietako bakoitzean detektagailu bat dago. Makina ikaragarri handiak dira, “lau solairuko etxebizitza baten tamainakoak”, eta teknologikoki oso konplexuak, “ingeniaritza lan ikaragarria”. Puntu hauetan dago esperimentuaren giltzetako bat. “Zehaztasun handia behar da emaitza egokia lortzeko, milimetrotako zehaztasunarekin egin behar dute talka partikulek detektagailuak bere lana egin dezan. Oso zaila da”.

Izpiak gurutzatzen diren aldiro protoien arteko 100.000 talka gertatzen dira. Pentsa segundoro 44.000 aldiz guru-

IMAJINAEZINEKO ABIADUR

27 kilometro dituen tunelari segundoko 11.000 bira ematen dizkiote protoiek. Ia argiaren abiadura hartzen dute.



kargatzeko”. Zirkuitua biribil erraldoi bat denez, partikulak beti kurban doaz eta horrek eragiten du partikulek abiadura galtzea. Hori saihesteko eta partikulak bidetik atera ez daitezkeen iman erraldoiak erabiltzen dituzte. “Dipoloak deitzen zaie eta hamar metro luze dira. Partikulak hormen kontra talka egitea ekidin eta aurrerantz bultzatzen dituzte. Esan genezake partikulentzat errail elektromagnetiko bat sortzen dutela”.


Protoiak zentimetro bateko lodiera duen izpi edo zorrota moduko batean garraiatzen dira, paketetan baturik. Horrek ere zailtasunak sortzen ditu: “Protoiak energiaz kargatuta doaz eta elkarrengandik aldaratzeko joera dute. Denak lerroan mantentzeko beste iman batzuk erabiltzen dira, kuadrupoloak”.

Beraz, imajinatu: 27 kilometro dituen tunel biribil bat, eta barruan protoiak biraka imanen laguntzarekin osatutako errail elektromagnetiko batean. Biraka, sekulako abiaduran:

tzatzen direla izpiak... “Sortzen den informazio kopurua ikaragarria da, ezin da dena gorde. Momentuan aukeratu behar da zer talka diren interesgarriak eta zeintzuk baztertu, eta gero informazio hori guztia munduko osoko zientzialariek aztertuko dute, partikula berrien bila”. Horrela aurkitu zuten, hain zuzen ere Higgsen bosoi.

2013ko udaberrian geldituko dute

Azeleragailua etengabe ari da lanean, 24 orduz egunean. Talkak etenik gabe gertatzen dira. “Oso noizean behin gelditzen dute, zerbait zuzentzeko edo hobetzeko. Lan nekeza da martxan jartzea, fase guztiak banaka konprobatu behar dira eta. Hogeitaz behar izan zituzten makina eraikitzeko. Lehen aldiz martxan jartzeko ere, asteak pasa ziren”. Gaur egun makina oso egonkorra da, eta urte eta erdi daramatza lanean gelditu gabe. Hala jarraituko du 2013ko udaberriera arte: “Hainbat hobekuntza ghitzeko geldituko dute, pare bat urtez”.



CERNEKO INSTALAZIOAK

27 kilometroko zirkuitua osatzen duen tunel biribila eraiki zuten Suiza eta Frantzian.

Muga hori gainditzea da, hain zuzen ere, zientziak duen erronkarik handiena. Zer tresna dituzue bide horretan urratsak egiteko?

Unibertsoaren hasierara gerturatzeko bi bide ditugu. Aukera bat da unibertsoa bera behatzea. Teleskopio handiak erabiliz, garai hartatik datorren zerbait aurkitu eta aztertzea. Baina hori oso zaila da. Big Bang-etik hainbeste gauza gertatu dira, hainbeste eraldatu da unibertsoa, oso zaila da arrasto erabat purua lortzea. Beste bidea da hasierako zopa bero hura artifizialki sortzen saiatzea, laborategian. Hori lortzeko, funtsean, ahalik eta energia gehien bildu behar da ahalik eta espazio txikienean. Eta horixe da CERNen egiten dutena.

Hasierako unibertso hura laborategian sortzea? Eta hori nola egiten duzue?

Esperimentuak egiteko protoiak erabiltzen dira. Ahalik eta energia gehienarekin kargatu behar dira. Horretarako partikulen azeleragailua deituriko makina erraldoia erabiltzen da. Partikulak zenbat eta azkarrago mugiarazi, orduan eta energia gehiago hartzen dute. Kargatuta daudenean, partikulen

“Higgsen partikula alde batera utzita, makina diseinatuta dago energia izugarri horietan egon daitekeen edozer aurkitzeko”

arteko talkak eragiten ditugu. Talka mikroskopiko horiek Big Bang modukoak dira. Energia izugarria askatzen da, eta partikula txikiagoak agertzen dira –gaur egun, modu naturalean aurkitzen ez direnak–. Partikula txiki berri horiek aztertuta jakin dezakegu unibertsoa nolakoa zen lehen une haietan.

Eta partikula horietako bat da, hain zuzen ere, uda aurretik komunikabideetan hainbesteko sona izan zuen Higgsen bosoia...

Hala da. Fisikaren barruan, partikula txiki horiek guztiak deskribatzeko eredu bat erabiltzen da, eredu estandarra deritzona. Partikulen ezaugarrietako bat da masa daukatela, bakoitzak berea. Bada, orain arte, masaren ezaugarri hori esplikatuko zuen pieza falta zitzaion puzzleari. 1960ko hamarkadan, Higgs izeneko fisikari batek proposatu zuen bere izena hartu duen partikula, modu teorikoan, ereduari zentzua emateko. Partikula horren zeregina, hain zuzen ere, besteei masa ematea litzateke. Bada, Higgsek duela 50 urte maila teorikoan proposatutakoa errealitatean existitzen dela konprobatu da, paperean idatzitakoa egia dela erakutsi da.

Baina horrek, berez, zer aurrerapauso dakar zientziarentzat?

Aurrerapausoa baino, ziurtatzen du erabiltzen ari garen eredu zuzena dela. Horrelako aurkikuntza baten ondoren, fisikak benetan funtzionatzen duen sententzia daukazu. Fisika teorikoa formulazio matematikoei erakikitako etxea da, eta esperimenteren bidez lortutako aurkikuntza horiekin erakusten da egiazkoa dela. Formulazio teoriko bat egiten duzu, esaten duzu horrek funtzionatzeko ezagutzen ez den partikula bat behar dela... Eta handik 50 urtera partikula hori topatzen duzu. Ederra da!

Higgsen partikula aurkitzeko eraiki zen, bereziki, CERNeko azeleragailua. Aurkitu duzue. Zein da hurrengo erronka?

Oraingoz, Higgsen partikula ikertzen jarraituko du, nolakoa den jakin behar dugu. Aztertu behar da nola deuseztatzen den, ea guk teorikoki aurreikusitako ezaugarriak betetzen ote dituen edo exotikoak, ezezagunak, diren beste batzuk ote dituen... Baina, Higgsen partikula alde batera utzita, makina diseinatuta dago energia izugarri horietan egon daitekeen edozer aurkitzeko.

Adibidez? Zer gustatuko litzaizueke aurkitzea, gaur egun teoria hutsa dena?

Esate baterako, supersimetrien teoria dago. Teoria horrek dio partikula bakoitzak bere parekidea duela, baina askoz masiboagoa...

Askoz masiboagoa? Zer esan nahi du horrek?

Funtsean, energia asko behar dela partikula horiek sortzeko. Adibidez, elektroiak modu naturalean daude gure artean. Superrelektroiak ez.

Eta egia balitz ezagutzen dugun partikula bakoitzak bere parekidea duela, horrek zer ondorioetara eramango gintuzke? Zer esplikatzeko balioko luke?

Unibertsoaren materia iluna esplikatzeko balioko luke, adibidez. Begira: ezagutzen ditugun partikula guztiek unibertsoaren %4 baino ez dute osatzen. Badago beste %25 inguru materia iluna deitzen duguna: galaxiak inguratzen dituen partikula zopa moduko bat da, baina ezin dugu ikusi. Badakigu hor dagoela, eragiten duen grabitate indarragatik. Argia desbideratu egiten da inguru haietatik igarotzen denean. Beraz, grabitate eremua sortzen duen zerbit dago, baina ez du argirik emititzen. Hori da materia iluna. Buelta gaitzen supersimetriaren teoriara: teoria horren arabera, superpartikulek osatzen dute materia iluna. Beraz, azeleragailuak superpartikula horiek aurkituko balitu, sekulako aurrerapausoa litzateke, materia iluna hobeto ezagutzea funtsezkoa delako unibertsoa hobeto ezagutzeko.

Ezagutzen ditugun partikulak alde batetik, materia iluna bestetik. Baina zer gertatzen da falta den %71-rekin?

Unibertsoa biolin



Soken teoria da gaur egun partikulen fisikan dagoen muturreko teoretiko bat. Iraultzailea da erabat: besteak beste, 10 edo 11 dimentsio daudela proposatzen du. Gaur ez dago modurik teoria horrek proposatzen duena esperimenteren bidez konprobatzeko, “nahikoa espekulatiboa da”, eta zientzialarien artean aldeko zein kontrako jarrerak sortu ditu. Urangak oso ondo ezagutzen du, bere espezialitatea da eta. Gaiari buruzko ikastaroa eman zuen uda aurretik New Yorken, eta liburu bat argitaratu berri du Luis E. Ibañezekin batera, Cambridgeko unibertsitatearen eskutik: *String theory and particle physics*.

“Teoria hutsa da, baina ideia, berez, oso polita da: unibertsoa osatzen duten partikula mota guztiak soke daude osatuta. Soka hauek dar-dar egiten dute. Soka mota bakarra dago; dardara da aldatzen dena eta horrek bereizten ditu partikulak. Oso poetikoa da; azken finean, musikaren antza du: soka berberak melodia ezberdinak sor ditzake”.

Dena esplikatzeko gai den teoria bakarra izan da zientziaren obsesioetako bat. “Unibertsoa objektu handiak (planetak, galaxiak...) esplikatzeko grabitatea daukagu, Einsteinen teoriak. Bestalde, mundu mikroskopikoan, partikulen funtzionamendua esplikatzeko, mekanika kuantikoa erabiltzen dugu. Baina ez gara gai bi planoak uztartu eta esplikatu dituen teoria bakarra osatzeko. Soken teoria da, hain zuzen ere, hori lor dezakeenetako bat”.



kuttun
lentzeria

erribera kalea tel. 943117936



malaur

MAITE
ILEAPAINDEGIA



Amaiako plaza, 2 tel. 943 143 278



Maluta
jatetxea • taberna

oilasko erreak • kaxuelitak • ogitartekoak
Izaga, 2 Tel. 943 860 224

CROISSANTERIA



pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46



MENDI - ONDO C.B.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 537 901

Nikol Enea



TABERNA

Amaiako plaza



NOLA S.L.
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK

Etengabeko garabi zerbitzua

Hego kalea, B3 (Estazioan)
20750 - Zumaiak
Tel.: 943 861 363
zumaia@carroceriasnoia.com

Itziar indutrigunea, C
20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943 606 291
noia@carroceriasnoia.com

636 867 812 (Zumaiak)
609 834 438 (Itziar-Deba)

www.carroceriasnoia.com

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Alta Mari, 3 blokea tel. 943 861 691



OLIDEN
CONSTRUCCIONES Y REFORMAS, S.L.

Era guztietako berrikuntza eta igeltserotza lanak:
FATXADAK ETA TEILATUAK
Sukaldeak, bainugelak...

Tel. 647 040 156 / 686 911 257



OSA
BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 686 364 149



OSKARBI
KIROLAK

Alai Auzategia, 14 • Arranitz, 1 Tel. 943 143 112
oskarbikirolak@euskalnet.net



OSTOLAZA
OSTOLAZA ZUMAIA, S.L.

Joxe Mari Kortu Industriegunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaiak (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 68 • Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: ostol@ostolaza.com

Ostolaza
Altzariak

Julio Beabide Ibilbidea, 1
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net

Tel./Faxa: 943 86 13 25

OTEZURI
KAFETEGIA

Gosariak
Ogia
Egunkariak

Sagarbidea, 4 Tel. 943 143 401

Are eta arraroagoa dela. Energia iluna deitzen diogu. Oraindik ez dugu ulertzen zer den. Ez dira partikulak. Pentsatzen dugu hutsaren propietateren bat dela, baina XXI. menderako erronka da hori zer den argitzea.


Big Bang-aren unera bueltatuta, unibertsoaren hasieratzat jotzen duzue, baina teoria batzuek diote aurretik beste Big Bang batzuk gertatu zirela, beste unibertso batzuk existitu zirela, hau dena zerbait ziklikoa dela...

Teoria horien arabera, Big Bang-a gertatzen da, unibertsoa etengabe zabalduz doa, baina hedatze horretan pixkanaka abiadura galtzen du. Iritsiko da une bat, non zabaltze prozesua gelditu eta berriro atzerantz egingo duen, berriro abiapuntuan biltzeraino. Eta ondoren beste Big Bang bat gertatuko litzateke, unibertsoa zabaldu, gelditu, bildu... Horrela etengabe. Teoria hori ez da bateragarria gaur egungo fisikarekin. Konpondu ezinezko arazoak sortzen ditu. Adibidez, errebotearen fasean, unibertsoa bildu eta berriro eztanda egiten une hori esplikatzeke, energia negatiboa beharko genuke gure formuletan, eta hori ezinezkoa da Einsteinen legeen arabera. Energia zero edo positiboa izan daiteke, inoiz ez negatiboa.

Unibertsoa nola hasi zen deskubritzea da zuen erronka; baina, denboran atzera egin beharrean, aurrera egingo bagenu, etorkizunera begiratuko bagenu, zer gertatuko da unibertsoarekin? Zabaltzen ari dela diozue, baina abiadura galtzen ari da? Inoiz gelditu eta atzerantz egingo al du?

Duela hamar bat urte arte pentsatzen zen unibertsoaren zabaltzea pixkanaka moteltzen ari zela, abiadura galtzen ari zela eta, agian, une batean gelditu eta atzerantz egingo zuela abiapunturaino. Baina 1998an ideia hori zalantzan jartzen hasi zen. Garai hartan hasi ginen lehen aipatu duan energia ilunaren berri izaten. Gaur egun erabat konprobatuta dago existitzen dela eta unibertsoaren %71 dela. Inork ez daki zer den. Esan genezake hutsaren energia dela. Hau da, espazio bat hartu eta erabat hustu ondoren gelditzen den energiari deitzen zaio energia iluna. Bada, energia ilunak ezaugarri misterioitsuak ditu. Adibidez, espazioa modu uniformean betetzen du; hau da, unibertsoa zabaldu arren dentsitate berbera mantentzen du. Harrigarriena da grabitatearen kontrako indarra duela, objektuak (planetak, izarrak...) aldaratzeko indarra du, haien arteko espazio-denbora zabaltzen du.

Beraz, zer gertatzen da unibertsoa zabaldu ahala? Alde batetik, materia arrunta eta hari lotutako grabitatearen indarra daukagu, frenatzeko eta abiapunturantz bueltatzeko joerarekin. Unibertsoa hedatzearekin batera, materia arruntaren dentsitatea diluitzen ari da etengabe, eta berarekin batera grabitatearen indarra leuntzen. Bestetik, energia iluna eta objektuak aldaratzeko duen indarra daukagu. Dentsitatea mantentzen duenez, ez denez diluitzen, bere aldaratze indarrari eusten dio, eta, halako batean, kontrako bi indar horien arteko lehian grabitateari nagusitzen zaio. Ondorioa? Uni-



UNIBERTSOAREN HISTORIA

Big Banga izan baino milaren gutxi batzuk arte gertatutakoa badakite zientzialariek. Baina zerk sortarazi zuen leherketa hura? Zer izan zen aurretik?

bertsoaren zabaltze prozesua moteldu beharrean azeleratu egin dela. Gaur egun, hala ari da gertatzen.

Horrek esan nahi du unibertsoak ez duela sekula atzera egingo, ez dela abiapuntura itzuliko, etengabe hedatuko dela?

Energia ilunaren ezaugarriek baldintzatuko dute. Benetan hutsaren energia bada, orduan unibertsoa etengabe zabalduko da eta pixkanaka itzaliz joango da: izarrak itzaliko dira, zulo beltzak lurrundu egingo dira, protoiak deuseztatu egingo dira... Unibertsoa leku oso hotza, iluna eta hutsa izango da. Baina energia ilun honek beste ezaugarri batzuk baditu, materia mota berri bat bada, ezaugarri ezegonkorak dituen, orduan gerta liteke uneren batean desagertu eta berriro materia arruntaren kolapsorako joera nagusitzea —grabitatearen indarra—, unibertsoaren hedatzea moteldu, gelditu eta abiapuntura itzultzeraino...

Hutsaren energia aipatzen duzu... Bitxia da.

Hutsa erabiltzen dugu, ez ezereza. Hutsa gauza interesgarritz beteta dago. ■

La Prima Vera
pizzeria



Alta Mari, 17, behea
tel. 943 247 011

Rosi Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arrapa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943 016 353

RUBIO Pinturak

PINTURAK,
ARTE EDERRAK,
ALFONBRAK,
DROGERIA,
PINTATURIKO PAPERA,
ESKULANAK...

943 861 335 • 656 779 788
Erribera 1 behea

SESMA
ENTRENATZAILE PERTSONALA

Kalitatezko Jarduera Fisikoa eta Kirola

667 750 206
www.entrenadorpersonalesma.com
josebasesma14@gmail.com

Talaya
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943 143 370

TALAI-PE
jatetxea-erretegia



Arrainak, mariskoak eta txuletak parrillan
Julio Beobide ibiltokia Tel. 943861392

Tapaia
Taberna



Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943 861 973

TTAKUN TABERNA



Izustarri, 3
tel. 943 865 289

TXIMISTA
garagardotegia

Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Txerri-ukondak (Modillo)
Salxitxak, oilaskoak...
Garagardak dukeran

Ondartza plaza, 4 behea Tel. 943 573 905

**TXORTENA
JATETXEA**

Eguneko menua, Asteburukoa,
Parrilla, Wifi gunea,
Plater konbinatuak,
Kazuelitak, Errazioak

Oikiako plaza 24.
Tel. 943 865 315
OIKIA

Txingurri
loradenda



Loradenda Lorazaintza
erribera, 1 tel. 943 860 778
tel. 943 861 180 655 703 343

Nekazaritza Injineru Teknikoak

UKENDU
PARABOTIKA
BELARDENDA



Aitziber Etxeberría Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943 860 992 www.ukendu.com

Urola 2000, s.l.
Aroztegia

*Eraikitzen akabera eta dekorazioa
*Baserrien zaharberritzea
*Enbarkazio konponketa
*Ate, zokalo, tarima eta pertsiak
*Arnaiari enpolutatzen aurrealdea
*Aroztegi metalikoa

Trenbide pasealekua, 1 tel. 943 143 505 - 619 424 323

Xanti



Xanti Osa
Arantxa Azkue

Amaia plaza, 13
tel. 943 860 914
657 794 153
Denda: tel./faxa 943 862 385

Zalla



• plater konbinatuak
• ogitartekoak
• oilasko erreak

Urte Plaza 3 • 943 86 23 87 ZUMAIA

ZUMAIA
AUTO-ESKOLA



• Gidabaimen guztiak ateratzeko baimendua
• Praktika eta azterketak Azpeitian
• GURE HELBURUA:
Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 - behea • tel. 943 86 10 18 • ZUMAIA

EuroTaller
ZUMAIA MOTOR, S.L.



José Rey Alfaro
Gerente

Santxo Auzoa, 22
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
Telf. 943 143 143 - Fax 943 865 161
e-mail: zumalamotor@telefonica.net

Zumaia optika



Txomin Agirre kaia, 6 tel./faxa: 943 143 057

bigarren eskuko liburu eta disko

**URRIAK 20 eta 21
OXFORD ARETOAN**

azoka

parte hartu!

Zazpigarren aldia izango da aurtengoa, eta bildutako dirua Zumaiaiko Distira Argazki Elkartearentzat izango da. Materialarekin lagundu nahi baduzu (liburuak, diskoak, dvd-ak, komikiak...), Alondegian utz ditzakezu. Aurreko sei aldietan bezala, azoka aurrera atera dadin ezinbestekoa da guztion parte hartzea. Etxean hamaika liburu, disko, dvd, komiki eta beste izaten ditugu hautsa jaten, eta azoka aukera polita da apaletan leku pixka bat egiteko. Hori bai, kontuan izan beste norbaitek erosteko modukoa behar duela izan. Horregatik, egoera onean daudenak bakarrik onartuko ditugu. Horregatik, egoera onean daudenak

bakarrik onartuko ditugu. Materialarekin lagundu nahi baduzu, Alondegian utz dezakezu, urriaren 19a arte.

Aurten Distira Argazki Elkartearentzat izango da zuen ekarpena. Herriko argazkizaleak biltzen ditu Distirak, 2009tik. Ikastaroak eta lehiaketak antolatzeaz gain, herriko hainbat ekimenetan hartu dute parte (aste solidarioa, Flysch Traileko argazki erreportajeak...). Udalak Forondan utzitako lokala egokitzea da orain elkartearen helburuetako bat, horrek elkartearen dinamika aberastuko duelako. Lokala behar bezala hornitzen laguntzeko erabiliko da azokako dirua.

**Zuen liburuak, diskoak eta pelikulak Alondegian
utz ditzakezue urriaren 19a baino lehen**

Casa BASUSTA

CASA
BASUSTA
LORATEGIA

Ezkontzak, Bataioak, Jaunartzeak,
Lore-zentruak, Koroak,
Landare naturalak eta artifizialak,
Zeramika-lanak eta zumezko saskiak

Etkez etxeko zerbitzua

Santiago Auzoa, 18 TEL: 943 862611



Zumalako Udala



Uzti postontzietan
(Narruondo, Oikia,
Artadi eta Alondegian)
inkesta beteta edo
bestelako zure
ekarpenak!



URRIA - AZAROA

DEIALDIAK

Urriaren 19tik 21era:

Alondegia kultur etxean: Baleikeren bigarren eskuko liburuen azoka.

Urriaren 22tik 26ra

Adineko pertsona ezinduek zaintzen dituzten familia zaintzaileentzat prestakuntza. Izen ematea: Udaleko gizarte zerbitzuan, 943 86 22 00.

Urriaren 26tik 28ra

Alondegia kultur etxean, ASTEBURU MIKOLOGIKOA.

Azaroaren 29tik abenduaren 3ra
EUSKARAREN ASTEA.

URRIA

Osteguna, 18

22:00etan Aita Marin, zine forum: "Las nieves del Kilimanjaro" (Robert Guediguian).

Ostirala, 19

19:00etan Foronda kultur etxean, GUNE taldearen otoitz-meditazio saioa.

Ostirala, 26

19:00etan Foronda kultur etxean, GUNE taldearen solasaldia: "Islam: por una economía justa, sin intereses y sin Bancos" - Javier Salaberria (Abdul Haqq)".

Igandea, 28

12:00etan Aita Marin, haur antzerkia: Kontakatillu taldearen "Katillukadak".

Astelehena, 29

18:00etan Alondegiko Oxford aretoan, datuen aurkezpena: "Zenbat euskara erabiltzen dugu Zumaiko kaleetan?" 2011ko neurketaren emaitzak, Soziolinguistika Klusterreko Belen Urangaren eskutik.

Asteartea, 30

18:00etan Alondegia kultur etxeko Oxford aretoan, hitzaldia, Arrate Plazaolaren eskutik (Donostiako Onkologiko Institutuko doktorea).

Antolatzailea: KATXALIN, Bularreko eta Ginekologiako Minbizia duten Emakumeen Elkarte.

AZAROA

Osteguna, 1

19:00etan parrokian, TOLOSAKO NAZIOARTEKO ABESBATZEN 44.

LEHIAKETAREN barne, kontzertua. 7tik 11ra Zumaiko XI. KLARINETE MARATOIOA.

Asteazkena, 7

19:00etan Komentuan, Klarinete Maratoiko ikasleen emanaldia.

Osteguna, 8

20:00etan Alondegia kultur etxean, Klarinete Maratoiko PINTXO-POTE MUSIKALA.

22:00etan Aita Marin, zine forum: "Redención" (Paddy Considine).

Ostirala, 9

19:00etan Foronda kultur etxean, GUNE taldearen otoitz-meditazio saioa.

20:00etan Alondegia kultur etxean, Klarinete Maratoiko kontzertua: KAFE MUSIKALA.

Larunbata, 10

18:00etan Komentuan, Klarinete Maratoiko Lehiaketa-kontzertua.

Igandea, 11

12:30ean Maria eta Jose aretoan, Klarinete Maratoiarri amaiera emateko ZUMBEN kontzertua.

Ostirala, 16

22:00etan Aita Marin, HUTSA antzerki taldearen "Publikoari gorroto" antzezlan.

Larunbata, 17

20:00etan Parrokian, Organo kontzertua Esteban Elizondoren eskutik.

Igandea, 18

12:00etan Aita Marin, haur antzerkia: La Baldufa taldearen "Déjà vu zirkoa" antzezlan.

Asteazkena, 21

18:30ean Maria eta Joseko aretoan, Musika Eskolaren Xixili eguneko jaialdia.

Osteguna, 22

17:30ean haur liburutegian, Maite Francorekin ipuin kontaketa: "Mundipurdiko ipuinak".

20:00etan Oxford aretoan, San Pedro abesbatzaren Xixili eguneko kontzertua.

22:00etan Aita Marin, zine forum: El topo (Tomas Alfredson).



TOLOSAKO ABESBATZA LEHIAKETA, ZUMAIAN

Azaroak 1, osteguna

19:00etan parrokian, TOLOSAKO NAZIOARTEKO ABESBATZEN 44. LEHIAKETAREN barne, kontzertua.

TXALAPARTA
OPARIAK

Angelita Soriano, 2
39750 ZUMAIA
#Gizakia
tel. 943 143 089
faxa. 943 430 637

Zumaia Hotela
Jalekua
Kafetegia

Alai auzategia, 20750 Zumaia tel. 943 143 441 faxa 943 865 161

Egin zaitez
BALEIKEko
bazkide

BALEIKE
GERRAKO BOST
DESAGERTU
ALURITU ENTUZTE



Urria, dena urriegi

Doinua: "Bazkalosteko kafea"

1.

Oroimenaren ere lausotzen duen
kostako brisa epela
masail gorriek esanagatik
galerna bazetorrela
pentsatuz olatuek pausoak
eramango zituztela
uda igaro ote da urak
lasai baleude bezela?
pentsatuz olatuek pausoak
eramango zituztela
irailak, poltsiko hutsek esan
digute balitekeela
mareak soilik ezaba ditzan
hondoratugi daudela

2.

Isiltasunak estaltzen badu
patriketako txin txin-a
norberak bere modura baina
guztiontzako berdina
zapata gorri, ile beltzaran
eta amantal urdina
gaur eskolatik begi umelez
dator etxeko erregina
zapata gorri, ile beltzaran
eta amantal urdina
ulertzekoa gure tikiak
ekarri duen samina
euro erdi bat igo omen da
paperezko hegazkina

3.

Ordezkatzean udako hanka
biluzien ttipi-ttapa
gaur kaleetan irrیشان doaz
pauso bakanak presaka
urria eta hego haizea
iritzi dira kostata
erortzen diren bakarrak dira
hostoak eta soldata
urria eta hego haizea
iritzi dira kostata
ta oporretan baleude gisan
oraindik zenbat korbata
tripa beteta, besteen goseaz
errez hitzegiten data!

4.

Berriz mundua konpondu nahian
kafetegiko mahai baten
saiatu arren aspaldi ez dugu
kafe berorik edaten
eskuak jasoz infinitora
oihuak aldarrikapen
bete gabeko promesek nola
ez duten xoxik ematen
eskuak jasoz infinitora
oihuak aldarrikapen
segi behar da gure pausoak
lurrean tinko marrazten
urak lepoan bada ere hemen
gaudela jakin dezaten



MIELE
ontzi garbigailua
G 4100 SC Brws Special

599€

MIELE
lehorgailu bero
ponpaduna
T 8826 WP LP

999€

MIELE
garbigailua
W 3420 LW

799€

Aurki ezazu udazkeneko eskaintza Zumaian

Iraunkortasun bermatua, puntako teknologia, erabilgarritasun azkarra eta emaitza bikainak. Udazkena iritsi da, eta berarekin MIELEren kalitate guztia eskuratzeko aukera: nahi duzuna etxeratzeko aukera duzu prezio harrigarrian

Bisita gaitzazu **ENDAÑETA ZUMAIA**n eta promozio berezi hau dastatu.

2012ko urriaren 10etik abenduaren 31 arteko balioa

Urola Kostako banatzaile ofiziala



ENDAÑETA ZUMAIA
ELEKTROGAILUAK

Erribera, 8 Tel. 943 861 694
www.endanetazumaia.com



Made in
Germany

Miele



LEHIALTASUN TXARTELA 2012

HILABETEA	HILABETEA	SARIA	AZALPENA
OTSAILA	1-29	SASOIAN JARTZEKO	10€-ko erosketak txartelak hauetan erabiltzeko: botikak, parafarmaziak, edergintza zentroak, belar dendak, fisioterapia zentroak, optikak, ile-apaindegiak eta talasoterapiak...
MARTXOA	1-29	PINTXO-POTEA	2 PINTXO POTE
APIRILA	1-30	UDABERRIA ZUMAIA	5, 10, 20 eta 50 €-KO EROSKETA TXARTELA
MAIATZA	1-31	UDABERRIA ZUMAIA	5, 10, 20 eta 50 €-KO EROSKETA TXARTELA
EKAINA	1-30	MERKATARITZAREN ASTEA	% 5EKO DESKONTU FINKOA EKAINEKO LARUNBAT BATEAN
UZTAILA	1-30	UDARA HEMEN DA	2 LAGUNENTZAKO BAZKARI/AFARIA. BALIOA 60 €
ABUZTUA	15-31	ESKOLARA ITZULTZEA	ESKOLARA ITZULTZEA, 5, 10, 20 ETA 50 €-KO EROSKETA TXARTELA
IRAILA	1-30	ESKOLARA ITZULTZEA	ESKOLARA ITZULTZEA, 5, 10, 20 ETA 50 €-KO EROSKETA TXARTELA
URRIA	1-15	ESKOLARA ITZULTZEA	ESKOLARA ITZULTZEA, 5, 10, 20 ETA 50 €-KO EROSKETA TXARTELA
AZAROA	15-30	BEZEROAREN HILABETEA	%5EKO DESKONTUA EZUSTEAN
ABENDUA	1-15	EGUBERRIA	5, 10, 20, eta 50 €-KO EROSKETA TXARTELA



Banku hobe

Jar zaitez gure kontsultariarekin harremanetan

Telf. 653.019.681
emayasori@bancomediolanum.es
www.bancomediolanum.es

Bertendona Kalea 6
Pk 48001, Bilbo
Telf. 944 790 022